



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

EHUNKIEN ETA PAREKAGARRIEN KUDEAKETA KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea, Debagoieneko Mankomunitateak emandako ehunkiak eta parekagarriak ingurumen iraunkorraren ikuspegitik kudeatzea da, ahalik eta gehien berrerabiliz eta birziklatuz.

2 KUDEATU BEHARREKO HONDAKINAK

Tratamendu-gaiak ehunkiak eta parekagarriak dira, Debagoieneko Mankomunitateak bide publikoan jarritako berariazko edukiontzien bidez bilduak, edota honelako gaiak (arropa, oinetakoak, osagarriak, tapakiak, izarak, etab.) biltzeko etorkizunean ezar daitezkeen beste zerbitzu batzuek bilduak.

3 KUDEATU BEHARREKO KOPURUAK

2012, 2013 eta 2014 urteetan, Debagoieneko Mankomunitatearen Ehunkien Bilketa Zerbitzuak hurrengo taulan jasotzen diren material kantitateak bildu ditu, asteroko maiztasunarekin entregatu direnak kudeatzaileari:

Urtea	Kg	Kg/bizt/urteko
2012	152.313	2,4
2013	170.102	2,7
2014	218.267	3,5

Dena den, urtero kudeatu beharreko kopuruak, honetarako ipinitako edukiontzietan erabiltzaileek uzten dituzten kopuruak edo Mankomunitateak ezarritako beste sistema alternatibo batzuek bildutakoaren arabera izango dira.

4 GAIK EMATEKO GUNEA

Kontratatzaileak ekai edo materialak emateko gunea bat izango du Mankomunitateak Arrasaten (Nafarroa Etorbidea, 17) duen egoitza zentraletik lerro zuzenean gehienez ere 70 km-ko erradioan, behar bezala egokitua kontratuaren xede diren gaiak hartzeko.

Kontratatik ziurtatu beharko du Mankomunitateak edo bere enpresa kontratistek ohi bezala ekai edo material-deskargak egin ahal izango dituztela astelehenetik ostiralera bitartean urte osoan, bai goizez eta bai arratsaldez, gutxienez ondorengo ordu-tarte hauetan:

- 08:00-14:00
- 15:00-17:00

Hala ere, premiazko egoera justifikatuetan, materialen ezohiko deskarga puntualak hitzartu edo adostu ahal izango dira kontratistarekin igandetan, jaiegunetan, gauez edota aipaturiko ordu-tarte horietatik kanpo.

Dena dela, deskarga bakoitzaren gutxi gorabeherako eguna eta ordua aurrez ohartaraztea eskatu ahal izango du kontratistak.

Materialak emateko tokian Zerbitzu mankomunatuetakoko bilketa- eta garraio-ibilgailuentzat egokiak izango diren sarbide eta deskarga-guneak (deskarga-zabaltza, kaiak edo bestelakoak) behar dira.

Eramaten zaion material guztia onartu eta kudeatu beharko du kontratistak, gaien izaera, osaera, egoera, hezetasun-maila, eskatu gabeko materiala izatea edo beste edozein aitzakia aparte utzita.

Hala ere, bilketa- eta garraio-prozesuek edo ekarpen-gunearen¹ eta emateko gunearen artean materialek izan dezaketen beste edozein prozesuk bildutako materialen kalitatea hondatzea eta murritztea eragiten badute, edo eskatu gabeko materialak ekartzea, Mankomunitateak kasu bakoitzean erabakiko ditu, bidezko iruditzen bazaio, akats horiek konpontzeko bilketa-enpresak aplikatu beharko dituen neurri zuzentzaileak.

Ahal bada, gaiak emateko gunea sailkapen eta tratamendurako planta bera izango da. Hala ere, eskaintzaileek beste emate-gune bat proposa dezakete, handik kontratistak, bere kargura, beste sailkapen eta tratamendu-planta batera eraman ahal izateko deskargatutako gaiak.

5 SAILKAPENA ETA TRATAMENDUA

Esleipendunak ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditu ematen zaizkion hondakinak, baliozta daitezkeen gaiak ahalik eta gehien atera eta erreusak ahal diren gutxien izan daitezzen.

Kontratatik lehentasuna eman behar dio berrerabiltzeari birziklatzearen gainera, eta honi balorizazio energetikoaren gainera. Aprobetxagarri ez diren erreusak baimendutako zabortegira eramango dira. Honek ezinbestean azkeneko aukera izan behar du, aurrez aipaturiko aukerak — eta hurrenkera horretan— ezinezkoak gertatzeagatik baztertu ondoren.

¹ Edukiontzia eta honen inguruak, edo etorkizunean jartzen diren beste bilketa-gune batzuk.

Halaber, lehentasuna emango zaio ingurune hurbilean materiala ustiatzeari, hondakinen kudeaketan hurbiltasun- eta autoaskitza edo autosufizientzia-printzipioak betez.

Esleipenduna beharturik dago ezinbesteko eragiketak eta kontrolak egitera ehunkien eta parekagarrien ustiatze-prozesua ongi burutzeko. Eskaintzaileek beren eskaintzetan proposatuko dituzte ekai edo materialek jasango dituzten prozesuak (adibidez, gaiak hartzea, sailkatzea, garbitzea, lisatzea, paketatzea, bidaltzea edo besteren bat) ondorengoak bezalako produktuak lortzeko:

- Berrerabiltzeko prestaturiko arropa, dohaintza, bidezko merkataritzako denda edo beste edozein erabiliz.
- Ehunki sailkatua eta paketatua, industrietara bidaltzeko lehengai gisa erabil dezaten.
- Erreusak, zabortegi baimenduetara bidaltzeko prestatuak.
- Bestelako produktuak.

Eskaintzaileek beren eskaintzetan gaiak sailkatu eta prestatzeko prozesuak zehaztuko dituzte, garbi esanez arropa garbitu eta lisatuko duten edo beste zer prozesu izango duen, baita sailkapenerako eta erreusetarako irizpideak ere.

Beharrezko eragiketa guztiak, garraioak, erreusen kudeaketa edo hartutako gaien kudeaketa oso-osoari dagokion beste edozein kostu kontratistaren kargura izango dira.

Gaiak emateko gunea edo/eta sailkapen eta tratamendu-guneak ezin baditu aldi batez hartu Mankomunitateak bidalitako gaiak, obra, matxura edo beste arrazoiren batengatik, kontratistak kudeatu eta ziurtatu behar dio alternatiba Mankomunitateari bildutako materialak deskargatzen eta tratatzen jarraitu ahal izateko bilketa-zerbitzuen programazioa aldarazi gabe (hitzarmenak beste sailkapen-planta batzuekin, aldi baterako biltegiak prestatu edo beste aukeraren bat).

6 MATERIALEN JABETZA

Kontratistari emandako materialak honen jabetzakoak izango dira gero. Hala ere, kontratistarekin hitzartu edo adostu ahal izango da berrerabiltzeko sailkatu eta prestaturiko arropa, oinetako edo osagarriak ematea, Debagoieneko bertako gizarte-premiak asetzeko.

7 GALDUTAKO GAUZAK

Eman zaizkion materialen artean kontratistak aurkitzen dituen baliozko gauzak Mankomunitatearen esku utziko ditu, gero horien jabe direla egiaztatzen dutenei itzuli ahal izateko.

Herritar batek esaten badu zerbait galdu duela edukiontziren baten barruan, eta ezin bada aurkitu izan ez edukiontzian bertan, ezta bilketa egiten duen ibilgailuan ere, emate-gunean hustu denean, esleipenduna beharturik dago, kasu bakoitzean Mankomunitateak emandako argibideen

arabera, galdutako gauza hori ustez dagoen material-pila aparte gordetzera, galdu duenak, kontratistaren langileen laguntzarekin, eskuz bila dezan galdutako gauza hori.

8 INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA

Kontratistak, urtean behin gutxienez, trataturiko gai edo materialen kudeaketa-txostena aurkeztu behar du, bertan honako hauek zehaztuz gutxienez:

- Txostenak aztergai duen urtean, sailkapen- eta tratamendu-plantan izandako ehunkien eta parekagarrien sartzeak, jatorrien arabera bereizita.
- Txostenak aztergai duen urtean, berrerabiltze, birziklatze, konposgintza, balorizazio energetiko eta zabortegira (erreusak) bideraturiko kopuruak eta ehunekoak, emaitzak eta denboran izandako bilakaera interpretatuz.
- Txostenak aztergai duen urtean, produktuen kopuruak eta ehunekoak, nora bidali edo non komertzializatu diren kontuan izanda, enpresen edo beste erakunde eta talde batzuen izenak zehaztuz.
- Berrerabiltzeko moduko arropa eta osagarrien kopuruak eta kalitateak, txostenari dagokion urtean lortuak.
- Kontratistaren lan-prozedura, lan-metodo, makina, langile edo besteri dagokionean izandako aldaketak, txostenari dagokion urtean betiere.
- Mankomunitateak eskatzen badio, ehunkien eta parekagarrien kudeaketari buruzko beste edozein informazio.

Kontratistak berehala eman behar dio Mankomunitateari bere lan-prozedura, lan-metodo, makina, langile edo besteri dagokionean izandako aldaketen berri.

Esleipenduna beharturik dago Kontrata honen zerbitzuari buruzko parte, txosten eta azterketak prestatzera, Debagoieneko Mankomunitateak eskatzen dizkion neurrian.

9 ZERBITZUAREN ARDURADUNAK

Esleipendunak Zerbitzu-arduradun bat izendatuko du, erabakiak hartzeko gaitasuna izango duena, eta hau arduratuko da zerbitzu kontratatua behar bezala antolatu eta gauzatzeaz, eta hau izango da Debagoieneko Mankomunitatearekin solaskide, zerbitzuari buruzko aginduak eta argibideak hartu eta betearaziz.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2015eko uztailaren 16an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2015eko uztailaren 16an.
IDAZKARIA**